

KORTADI OLANO, Edorta. *Gipuzkoako artea irudietan / Arte de Guipúzcoa en imágenes.*

Elbidun liburua. Gipuzkoa Donostia Kutxa. Editorial Nerea, S.A. Donostia, 2000. 31,5 x 24 zm.; 204 orrialde.

Juan SAN MARTIN

Liburu eder hau apaintasun txukunez aurkeztua da eta, horren arabera, kolorezko argazkiz ondo hornitua dator. Baina, zortzi kapitulu osatzen den bere edukiarl garrantzizkoagoa deritzagu. Horietan ikusten balta zein egoki aztertuz eta adieraziz eskaintzen digun Edorta Kortadi jaunak Gipuzkoak dituen arte balloak.

Aurkezpena Kutxako lehendakari den Fernando Spagnolo de la Torre jaunak egiten dio eta horren ondotik datoz E. Kortadik egoki idatzirik honako kapituluok: Historiaurrea, Erromanizazioa, Erromanikoa, Gotikoa, Pizkundera, Barrokoa, Erromantizismoa eta Abangoardiak. Esan bezala, denak argazkiz ongi hornituak.

Lehenik harpeetan aurkituriko edukia dator, tresneria, hezur landu eta marrazkidunak, Ekain eta Altxerriko pinturak, eta jarraian trikuharriak, harrespilak, Axtrokiko kelta ontziak eta abar. Ondotik, erromatarren tresneria, diru, irudi, kristal eta zeramikazko ontziak

Erromanikoaren aztarnak, ordea, Astigarribiako San Andres Apostoluaren elizatik hasten dira, Irungo Junkalگو Andra Mariarekin jarraitzeko. Orobat, Leintz aldeko ermita erromanikoen agiriak eta abar. Baina, horien artean ez zen gaizki etorriko Eibarko San Andres parrokian den San Pedoren harrizko irudi ederra ere.

Gotikoa askoz ugariagoa da eta hor datoz zenbait eliza eta irudi eder, Gipuzkoa guztian agertzen direnak, zenbait dorretxe eta etxe tartean direla.

Pizkundeak ere eskaintzen digu arte balio ederriki, etxeez gainera, zenbait eskultore ezagunen lanak eta, beréziki, aldareak. Horiek eransteakoak dira Donostian Elizbarrutiko museoan gordetzen diren hainbat pieza ederrel.

Barrokkoa ez da gutxiagorako, zeren hor sartzen baitira elizarik anitz Loiolako basilika barne dela, baina, aldi berean, baita herrietako zenbait Udaletxe ere.

Erromantizismoak berez dakar orokortasuna eta Neoklasikotik Modernismora garamatza. Bertatik laster sartuko gara Abangoardietan, bai arkitekturan, eskulturan eta pinturan. Horien artean datoz, besteak beste, egile aipagarri hauek: Gregorio Azpiazu, F. Arzadun, J.M. Aizpurua, F.J. Saenz de Oiza, M. Oriol, R. Moneo, X. Unzurrunzaga, Peña Gantxegi, Nikolas Lekuona, C. Arruti, Jorge Oteitza, E. Txillida, X. Alvarez Eulate, R. Ugarte, R. Mendiburu, J. R. Anda, R. Ugarte, N. Basterretxea, B. Ameztol, A. Nagel, C. Gangutia, R. Balerdi, A. Arias, Zumeta, J. L. Goenaga, J. R. Amondarain, eta abar barne direla.

Holako liburu baten aurrean, hitzak ez dira aski. Bakoitzari hobe zaio liburura zuzen jotzea. Bada hor zer irakur, zer ikus eta zer ikas.

Izan ere, Edorta Kortadik bere idatzian gure eskuotara hain ongi eskaintzen dizkigu, mendez-mende, datozkigun arte ondasunen baliokak, garai bakoitzaren historia oso ongi eta zehatz adieraziz, eta bertan agertzen dizkigun irudiak hor daude edonork begiz hobeto ulertzeko eran.

Kutxari eskertzekoa da holako lan bikaina argitaratzen hain ongi lagundu diolako.